

Legazpin, 2019ko uztailaren 16an

Guraso agurgarriak:

Gutun honen bitartez helarazten dizkizuegu **2019-20 ikasturtearen egutegia**, gelen kokapena eta ikasturte hasierari buruzko zenbait ohar.

AURKEZPEN EGUNA	HH3-5 / LH	DBH /DBHO
Irailaren 9an	10:00etatik 12:30era*	Goizeko 11:30ean

***OHARRA: Kontu egin datorren ikasturtean HH eta LHko ikasle guztiak eguerdian 12:30ean irtengo direla.**

DBHn berriz, asteazken eta ostiraletan ordutegi trinkoa izango da (08:00etatik 14:00etara)

HH2

- **Etxekotzea:**
 - ✓ Irailak 9-13 : Bi txandatan banatuko dira ikasleak, batzuk 09:30etik 10:30era eta besteak 11:00etatik 12:00etara
 - ✓ Irailak 16-20: Denak 10:00etatik 12:00etara
 - ✓ Irailaren 23tik aurrera: Ordutegi osoa
- **Irailaren 23tik aurrera zerbitzu guztiak eskainiko dira.**

Zerbitzu hauen beharra izanez gero, irailaren lehenengo astean idazkaritzan jakinaraztea eskertuko genizueke. Bazkalondoan autobus zerbitzurik izango ez denez gero, gurasoen ardura izango da haurrak jasotzea.

IRAILEKO ORDUTEGIA

- **HH 3, HH4, HH5 eta LHko ikasleek (LH5ekoek izan ezik) irailaren 9tik 20ra goizeko ordutegia izango dute.**
 - ✓ 09:00etatik 12:30era.
- **LH5eko ikasleek, FIE (Fortnight Immersion to Explorers) ingeleseko murgilketa dela eta, ordutegi hau izango dute irailaren 9tik 20ra bitarte:**
 - ✓ 09:00etatik 13:30era

- **DBH eta DBHOkoek irailean ordutegi trinkoa** izango dute:
 - ✓ DBH1, DBH2, DBH3 eta DBH4: 08:00etatik 14:00etara
 - ✓ DBHO: 08:00etatik 14:30/ 14:45era

IGERIKETA IKASTAROA

LH1etik LH4ra egiten den igeriketa ikastaroa **irailaren 16an hasiko** da.

ZERBITZUAK

Irailaren 10tik aurrera zerbitzu hauek eskainiko dira:

- ✓ **Autobusa** : 09:00etan eta 12:30ean.
- ✓ **Jangela**: 14:30ak arte.
- ✓ **HH 3-4-5 eta LHko zaintza**: 08:00etatik 09:00etara.

Zerbitzu hauen beharra izanez gero, irailaren lehenengo astean idazkaritzan jakinaraztea eskertuko genizueke. Bazkalondoan autobus zerbitzurik izango ez denez gero, gurasoen ardura izango da haurrak jasotzea.

Bukatzeko, jakinarazi nahi dizuegu **hemendik aurrera** oharrak eta dokumentuak posta elektronikoz edo Alexiaren bitartez bidaliko ditugula.

Besterik gabe, agurtzen zaituzte:

Zuzendaritza

Ondo ibili oporretan !!!